

ERABAKIA, 2015eko urtarrilaren 9koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena aipatzen diren lanpostuak aldi baterako zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko **ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK** onartzeko dena.

Deialdia 2014ko abenduaren 16ko UPV/EHUren Gerentearen Erabakiaren bidez egin zen.

ARAU APLIKAGARRIAK

• Akordioa, 2014ko uztailaren 1ekoa, AZP funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZP funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko buruzkoa Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2014ko abuztuaren 27ko EHAA).

• Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian).

Beraz, Gerentzia honek

ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak argitaratzea, Euskal Herriko Unibertsitatearen web-orrian.

Onartuak izan ez direnek, bi laneguneko epea izango dute zerrendak UPV/EHUko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, ez onartzea eragin duen arrazoia zuzentzeko.

Gogorarazi nahi da UPV/EHUren erregistro orokorraren atalen ordutegia hauxe dela: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30etara. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, 9:00etatik 13:00etara.

Leioan, 2015eko urtarrilaren 9an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/ EHUko Gerentzia

Stua.: Miren Lorea Bilbao Arteche

